# elkarkidetza

Nº2 JUNIO 2002 Boletín cuatrimestral

## titulares

Acuerdo de colaboración entre Lagun Aro, Geroa y Elkarkidetza ....................... pág.2

Respondemos al reto de las tecnologías con una nueva web ....................... pág.4



Elkarkidetza modifica la formula de redondeo de los préstamos hipotecarios ....................... pág.2

### Preguntas y Respuestas

- ¿Quiénes son los beneficiarios de las pensiones? ....................... pág.3




## editorial

El día 22 de marzo celebramos el acto social más importante de Elkarkidetza, la Asamblea Anual. Un encuentro en el que nos reunimos más de quinientos compromisarios y compromisarias, representantes de todos los colectivos asociados, para, además de dar cuenta del balance de gestión, intercambiar inquietudes, proponer nuevos proyectos y analizar nuestro ritmo de crecimiento en nuevas personas asociadas y en capital, siempre, sin perder la perspectiva de que nuestro fin último es conseguir un patrimonio que garantice a todos nuestros socios y socias una pensión digna.

En la reunión, que este año se ha celebrado en Bilbao, el presidente de la Entidad resaltó el incremento del 10% en el número de cotizantes, y dio cuenta de los resultados económicos con un aumento del 9,67% en el patrimonio y una rentabilidad media en los últimos diez años, del 11,05%. Además, reivindicó un nuevo marco jurídico que permita un tratamiento fiscal diferenciado y favorable a los sistemas de empleo. También dio a conocer el acuerdo de colaboración alcanzado con Geroa y Lagun Aro, entidades con intereses similares a los de Elkarkidetza de cara al desarrollo de la Previsión Social Complementaria. Finalmente, la Asamblea General aprobó la gestión de 2001 y el Plan de Gestión para el 2002.

www.elkarkidetza.net

© Elkarkidetza EPSV.

e-mail: elkarkidetza@elkarkidetza.net
*ARABA.* *Ramón y Cajal 7 y 9. 01007 VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41*
*BIZKAIA.* *Gardoki,2 bajo.-48008 BILBAO Telf.: 94.415.55.78*
*GIPUZKOA.* *San Martín, 2-20005 DONOSTIA. Telf.: 943.43.02.56*

# Acuerdo para el desarrollo de los sistemas de empleo

En los Estados modernos es básico el desarrollo de la Previsión Social Complementaria como parte integrante de la cobertura social.

Dentro de este campo de cobertura social tienen gran importancia los sistemas de empleo, nacidos en el seno de las relaciones laborales y con unas características que definen sus prestaciones como ligadas al segundo nivel de dicha cobertura, el profesional.

En estos sistemas, Lagun-Aro ha sido el referente como sistema de previsión de un colectivo específico, el de cooperativistas. Geroa ha supuesto la experiencia de conjuntar voluntades entre la patronal y los sindicatos, para el desarrollo de un sistema de previsión novedoso y de creciente desarrollo. Y Elkarkidetza ha constituido la misma experiencia de previsión en relación con los empleados y empleadas de la Administración pública vasca.

Dentro de estas ideas iniciales se ha firmado un protocolo de colaboración de cara al desarrollo de la Previsión Social Complementaria, especialmente en los Sistemas de Empleo.

Con este protocolo se propone:

**Cooperar en la búsqueda de una mejora de servicio a los mutualistas**

**Profundizar en el conocimiento mutuo entre las Entidades adheridas**

- Profundizar en el conocimiento mutuo entre las Entidades adheridas y suministrar a los otros asociados el apoyo que estos soliciten en aquellas actuaciones de desarrollo de la Previsión Social Complementaria, en su modalidad de Empleo.
- Impulsar la participación y el aumento de las relaciones sociales y el intercambio de experiencias entre las Entidades adheridas desarrollando proyectos conjuntos en aquellas áreas en las que la colaboración entre Entidades proporcione un beneficio mutuo, o un desarrollo de los Sistemas de Previsión Social de Empleo.
- Promover la celebración de foros explicativos y formativos respecto a la Previsión Social y los Sistemas de Empleo.
- Cooperar en el desarrollo de la mejora de los sistemas de gestión dentro de las Entidades.

Y todo ello enmarcado en la búsqueda de una mejora de servicio a los mutualistas. Al mismo podrán adherirse en el futuro otras entidades colectivas, preferentemente Entidades de Previsión Social, relacionadas con los sistemas de empleo.

## El redondeo de los préstamos hipotecarios



**Jesús Mª Larretxi**
Secretario General

En el sector financiero y de crédito ha sido costumbre la denominada "cláusula de redondeo al alza", que significa que cuando en un cálculo de tipo de interés se llega a una cifra decimal pequeña (diezmilésima por ejemplo) se redondea el cálculo hacia la cifra superior. Este criterio fue recurrido ante los Tribunales por la Asociación de Usuarios de Banca, habiendo determinado el Juez que el mismo tiene que ser eliminado de los futuros préstamos.

Aunque la sentencia no es firme, porque ha sido recurrida, Elkarkidetza ha decidido, no sólo eliminarla de los futuros créditos hipotecarios que se vayan firmando, sino eliminarla también de los ya concedidos en la medida que se vaya produciendo el momento de modificación del tipo de interés. Los socios y socias no tienen que hacer nada a este respecto, ya que Elkarkidetza modificará automáticamente la forma de cálculo en todos y cada uno de los préstamos hipotecarios, que tengan esta cláusula en vigor.

## Nuevo responsable en la Delegación de Bizkaia



Joseba Intxausti Iztueta, que trabajaba en la Delegación de Gipuzkoa de Elkarkidetza, ha pasado desde comienzos de este año a ocupar el puesto de Delegado de Bizkaia. Está Licenciado en Derecho y especializado en Administración Pública. Antes de ingresar en Elkarkidetza, en 1997, desempeñó diversas funciones en banca, seguros y en la Administración Local.

**Le deseamos la mejor de las fortunas en su nuevo cometido.**

# Europa camina en un mismo sentido

El mantenimiento de un elevado grado de protección social es un objetivo compartido por todos los Estados miembros de la Unión Europea. El control del coste de esa protección constituye un desafío permanente, pues debe seguir garantizando la cohesión social y, a la vez, contribuir al crecimiento económico.

Las prestaciones de jubilación son un componente básico de los sistemas de protección social de los países de la Unión. El gasto derivado de los sistemas públicos de pensiones representa cerca de la mitad del total del gasto en protección social y supone entre el 9% y el 15% del Producto Interior Bruto (PIB) de los Estados miembros. Esta proporción podría aumentar considerablemente como consecuencia del envejecimiento de la población de la Unión. En 1995, el 23% de la población tenía 65 o más años, cifra que alcanzará el 40% en el año 2025.

Por ejemplo, Alemania tenía, en el momento del informe recogido en el cuadro, 82 millones de habitantes. El número de personas de 65 o más años de edad, en relación a las de 15 a 64 años, ambos inclusive, era del 21,7%. El importe de los fondos de pensiones era de 310.000 millones de dólares. Esta cifra supone el 14% del PIB del país, y un importe medio de 3.800 dólares por persona.



**Población y activos de fondos de pensiones**

| País | Población (1) | Ratio de dependencia (2) | Valor de los activos de los fondos de pensiones (3) | Activos de los fondos de pensiones en % del PIB (4) | Activos de los fondos de pensiones per cápita (5) |
|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 82,0 | 21,7 | 310 | 14 | 3,8 |
| Bélgica | 10,2 | 24,2 | 25 | 11 | 2,5 |
| Dinamarca | 5,3 | 22,4 | 148 | 84 | 27,9 |
| España | 39,3 | 23,5 | 22 | 4 | 0,6 |
| Finlandia | 5,1 | 20,9 | 40 | 35 | 7,9 |
| Francia | 58,6 | 22,7 | 95 | 7 | 1,6 |
| Irlanda | 3,6 | 19,0 | 29 | 42 | 8,0 |
| Italia | 57,4 | 23,2 | 91 | 7 | 1,6 |
| Noruega | 4,4 | 25,0 | 35 | 23 | 7,9 |
| Países Bajos | 15,6 | 18,8 | 502 | 127 | 32,2 |
| Portugal | 9,9 | 22,4 | 10 | 9 | 1,0 |
| Reino Unido | 59,0 | 24,6 | 1.015 | 77 | 17,2 |
| Suecia | 8,9 | 28,6 | 142 | 66 | 16,0 |
| Suiza | 7,1 | 22,4 | 288 | 117 | 40,6 |

*Fuente: Population Concern 30 junio 1997, European Pension Fund Managers Guide, Volume I – The Marketplace, 1998; William M.Mercer*

*El informe completo de la Comisión Europea se encuentra en la página Web de Elkarkidetza, con el título de "Hacia un mercado único de sistemas complementarios de pensiones"*

1) Personas en cada país, en millones.
2) Porcentaje de la población de 65 o más años de edad frente a la de edades comprendidas entre los 15 y los 64 años, ambas inclusive.
3) Importe de los fondos de pensiones, en miles de millones de dólares.
4) Importe de los fondos de pensiones en relación con el Producto Interior Bruto.
5) Importe de los fondos de pensiones dividido entre el número de personas, expresado en miles de dólares.

## Preguntas y Respuestas

**¿Quiénes pueden ser mis beneficiarios en Elkarkidetza?**

**Respuesta:** El primer beneficiario eres tú mismo. Seamos conscientes de que todos y cada uno de los partícipes cotizamos para percibir una prestación de jubilación, que confiamos en alcanzar. Además, también estás generando el derecho a una posible prestación de invalidez. Si se da la triste circunstancia de que no alcances la edad de jubilación, los beneficiarios por viudedad serían tu cónyuge, o el compañero o compañera estable con capacidad para contraer matrimonio. Si éste no sobrevive serían tus hijos e hijas menores de 25 años, como beneficiarios de orfandad. En el caso de no existir estas personas, tus herederos legales generarían el derecho a rescatar el capital acumulado. No cabe otro tipo de beneficiario fuera de este entorno.

**Creemos que al último boletín le falta frescura, colores más vivos y sobre todo no es atractivo para leer.**

**Respuesta:** Estamos en un proceso de mejora continua y agradecemos vuestras sugerencias. Queremos que este sea un boletín vivo y abierto a todas las consultas y aportaciones. En este número seguimos tratando de mejorar y esperamos vuestra opinión con respecto a las modificaciones que hemos realizado.

**¿Es posible percibir los Derechos Consolidados antes de causar pensión?**

**Respuesta:** Sí. Se pueden percibir íntegramente en los dos supuestos que se denominan como "desempleo de larga duración" y "enfermedad grave". En el primero de los supuestos se exige el permanecer en la situación legal de desempleo como mínimo un año y no percibir del INEM prestación de nivel contributivo. En el segundo, la enfermedad grave debe padecerla el socio o socia, o bien su cónyuge o conviviente, o alguno de los ascendientes o descendientes de aquellos en primer grado, o bien persona que, en régimen de tutela o acogimiento, conviva con el socio o la socia, y de ellos dependa.

# w w w . e l k a r k i d e t z a . n e t

El rápido avance de las nuevas tecnologías de la información y, en concreto, la creciente utilización de Internet, tiene una clara respuesta en Elkarkidetza con la creación de una nueva página Web, a través de la cual se verá incrementada nuestra capacidad de atención personal y de asesoramiento.

Además, los socios y socias podrán acceder a sus datos personales, de igual manera que si estuvieran presentes en nuestras oficinas. Para su comodidad y satisfacción están a un click de distancia.

El paso previo es convertirse en "e-miembro", a través de la propia página Web. A partir de ese momento puede acceder a todos los servicios simplemente utilizando su clave personal.













Te invitamos a realizar un recorrido por la Web para que nos conozcas mejor, saber qué hacemos y cómo trabajamos para ofrecer a nuestros socios y socias un futuro seguro y sin riesgos. Queremos introducirte en el mundo de la previsión social.

# (e) elkarkidetza

**2 ZKIA** 2002 EKAINA

Lau hilabetez behingo buletina

## titularrak

**Lagun Aro, Geroa eta Elkarkidetzaren arteko lankidetza-akordioa** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .2.orr.

**Teknologia berrien erronkari erantzuten diogu web berriarekin** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .4.orr.

**Elkarkidetzak hipoteka-maileguak biribiltzeko formula aldatzen du** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .2.orr.

**Galderak eta erantzunak**

- **Nortzuk izan daitezke nire onuradunak Elkarkidetzan?** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .3orr.






## editoriala

Martxoaren 22an Elkarkidetzaren ekintza sozialik garrantzitsuena egin genuen, Urteko Batzar Nagusia. Bertan izan ginen bostehun konpromisario baino gehiago, kide diren talde guztien ordezkari, kudeaketa-balantzearen berri izateaz gain, elkarren arteko kezkak trukatzeko, proiektu berriak proposatzeko eta kidetutako pertsona berrietan eta kapitalean dugun hazkunde-erritmoa aztertzeko, beti ere gure azken xedea zein den ahaztu gabe: ondarea lortzea gure bazkide guztiei pentsio duina bermatzeko.

Batzarra Bilbon egin da aurten, eta, bertan, Elkarkidetzako lehendakariak azpimarratu zuen kotizatzen dutenen kopurua %10 hazi dela, eta ekonomi emaitzen berri eman zuen: ondarea %9,67 hazi da eta azken hamar urteetako batez besteko errentagarritasuna %11,05ekoa izan da. Gainera, esparru juridiko berria erreklamatu zuen, zerga-tratamendu ezberdina izateko, enplegu-planentzat lagungarria izan dadin. Geroa eta Lagun Arorekin, Elkarkidetzaren antzeko erakundeekin, izenpetutako lankidetza-akordioaren berri ere eman zuen, gizarte-aurreikuspen osagarria garatzearren. Azkenik, Batzar Nagusiak 2001eko kudeaketa eta 2002ko kudeaketa-plana onartu zituen.

www.elkarkidetza.net

© Elkarkidetza BGAE.
e-mail: elkarkidetza@elkarkidetza.net
*ARABA. Ramón y Cajal 7 y 9. 01007 VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41*
*BIZKAIA. Gardoki,2 bajo.-48008 BILBAO Telf.: 94.415.55.78*
*GIPUZKOA. San Martín, 2-20005 DONOSTIA. Telf.: 943.43.02.56*

# Enplegu-sistemak garatzeko akordioa

Estatu modernoetan funtsezkoa da gizarte-aurreikuspen osagarria garatzea, gizarte-estalduraren zati bat den neurrian.

Gizarte-estalduraren arlo horren barruan garrantzi handia dute enplegu-sistemek. Horiek lan-harremanen esparruan sortu ziren, eta euren ezaugarriak direla-eta, eskaintzen dituzten prestazioak estaldura horren bigarren mailarekin, profesionalarekin daude lotuta.

Sistemotan Lagun Aro izan da erreferentea talde berezi baterako aurreikuspen-sistemetan, kooperatibistenean, alegia. Geroa patronalaren eta sindikatuen borondateak lotzeko esperientzia izan da, hain zuzen ere, aurreikuspen-sistema berritzaile eta hazkunde gorakorrekoa garatzeko. Elkarkidetza aurreikuspenaren inguruan egindako esperientzia bera izan da, baina Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioko langileentzat.

Hasierako ideia horien artean lankidetzarako protokolo bat sinatu dugu, gizarte-aurreikuspen osagarria garatzeko, batez ere enplegu-sistemetan.

**Kidetutako elkarteen arteko elkar ezagutza sakontzea**

**Mutualistei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko bilaketan laguntzea**

Protokolo horrekin proposatzen da:

- Kide diren elkarteek elkar gehiago ezagutzea, eta beste kideei enplegu modalitateko gizarte-aurreikuspen osagarria garatzeko jarduketetan behar duten laguntza ematea.
- Parte-hartzea eta kide diren erakundeen arteko gizarte-harremanak eta esperientzien elkartrukea gehitzea bultzatzea. Horretarako, baterako proiektuak garatuko dituzte erakundeen arteko elkarlanak denentzako onura, edo enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemen garapena sor dezaketen arloetan.
- Gizarte-aurreikuspena eta enplegu-sistemak azaltzeko eta horiei buruzko prestakuntza eskaintzeko foroak egitea bultzatzea.
- Erakundeen barruko kudeaketa-sistemak hobetzeko garapenean laguntzea.

Eta hori guztiori mutualistei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea bilatzen den bitartean.

Akordio horrekin beste erakunde kolektibo batzuek egin ahal izango dute etorkizunean bat; lehentasunez, enplegu-sistemekin zerikusia duten gizarte-aurreikuspeneko erakundeek.

# Hipoteka-maileguen biribiltzea



**Jesús Mª Larretxi**
Idazkari Nagusia

Finantzen eta kredituen sektorean ohikoa izan da "goranzko biribiltze-klausula", hau da, interes-tasaren kalkuluan zenbaki hamartar txikia lortzerakoan (hamarmilarena esaterako) kalkulua goiko zifrara biribiltzen da.

Irizpide horren aurkako errekurtsoa jarri zuen auzitegietan Bankako Erabiltzaileen Elkarteak, eta epaileak irizpide hori etorkizuneko maileguetatik kendu egin behar dela ebatzi.

Epaia irmoa ez bada ere, errekurtsoa jarri baitzaio, Elkarkidetzak erabaki du ez bakarrik etorkizunean izenpetuko diren hipoteka-maileguetatik kentzea, baita orain arte emandakoetatik ere, mailegu bakoitzaren interes-tasa aldatzeko unea heltzerakoan. Bazkideek ez dute ezer egin behar horretarako, Elkarkidetzak automatikoki aldatuko baitu kalkulatzeko modua klausula hori indarrean duten hipoteka-mailegu guztietan.

# Arduradun berria Bizkaiko Ordezkaritzan



Joseba Intxausti Iztuetak Elkarkidetzaren Gipuzkoako Ordezkaritzan egiten zuen lan, eta urte hasieratik Bizkaiko Ordezkari lanpostua betetzen du. Zuzenbidean lizentziatua da eta herri-administrazioan berezitua. Elkarkidetzan 1997an sartu aurretik, zenbait lan bete zituen bankan, aseguruetan eta toki-administrazioan.

**Bere eginkizun berrian zorterik onena opa diogu.**

# Europa norabide berean aurrera

Gizarte-babes maila handia mantentzea da Europar Batasuneko kide diren estatu guztiek duten helburua. Babes horren kostua kontrolatzea etengabeko desafioa da, babes horrek gizartearen kohesioa bermatzen jarraitu behar duelako, eta, aldi berean, ekonomiaren hazkunderako lagundu behar duelako.

Erretiroko prestazioak Batasuneko estatuen gizarte-babeserako sistemen funtsezko osagarria dira. Pentsio-sistema publikoen ondoriozko gastuak gizarte-babesean gastatzen denaren ia erdia dira, eta Batasuneko estatuen Barne Produktu Gordinaren (BPG) %9 eta %15 bitartean daude. Proportzio horrek asko egin lezake gora Batasuneko biztanleak gero eta zaharragoak dira-eta. 1995ean, biztanleen %23k 65 urte edo gehiago zituen, eta adin horietakoak izango dira biztanleen %40 2025. urtean.

Adibidez, Alemanian, koadroan jasotako txostena egin zenean, 82 milioi biztanle bizi ziren. Bertan, 65 edo gehiagoko pertsonak 15 urtetik 64 urtera artekoekin alderatuta, biak barne, %21,7 ziren. Pentsio-fondoetan 310.000 milioi dolar zeuden. Kopuru hori herrialdearen BPGaren %14 da, batez beste 3.800 dolar pertsonako.



**Biztanleak eta pentsio-fondoen aktiboak**

| Estatua | Herria (1) | Menpetasun ratioa (2) | Pentsio-fondoetako aktiboen balioa (3) | Pentsio-fondoen aktiboak BPGaren %an (4) | Pentsio-fondoen aktiboak per capita (5) |
|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 82,0 | 21,7 | 310 | 14 | 3,8 |
| Belgika | 10,2 | 24,2 | 25 | 11 | 2,5 |
| Danimarka | 5,3 | 22,4 | 148 | 84 | 27,9 |
| Espainia | 39,3 | 23,5 | 22 | 4 | 0,6 |
| Finlandia | 5,1 | 20,9 | 40 | 35 | 7,9 |
| Frantzia | 58,6 | 22,7 | 95 | 7 | 1,6 |
| Irlanda | 3,6 | 19,0 | 29 | 42 | 8,0 |
| Italia | 57,4 | 23,2 | 91 | 7 | 1,6 |
| Norvegia | 4,4 | 25,0 | 35 | 23 | 7,9 |
| Herbehereak | 15,6 | 18,8 | 502 | 127 | 32,2 |
| Portugal | 9,9 | 22,4 | 10 | 9 | 1,0 |
| Erresuma Batua | 59,0 | 24,6 | 1.015 | 77 | 17,2 |
| Suedia | 8,9 | 28,6 | 142 | 66 | 16,0 |
| Suitza | 7,1 | 22,4 | 288 | 117 | 40,6 |

*Iturria: Population Concern 30 junio 1997, European Pension Fund Managers Guide, Volume I – The Marketplace, 1998; William M.Mercer*

*Europar Batasunaren txosten osoa elkarkidetzaren web gunean dago, "Hacia un mercado único de sistemas complementarios de pensiones" izenburuarekin.*

1) Pertsonak estatu bakoitzean, milioitan.
2) 65 urte edo gehiagoko pertsonen ehunekoa 15 eta 64 urteko pertsonekin alderatuta, biak barne.
3) Pentsio-fondoen zenbatekoa, mila milioi dolarretan.
4) Pentsio-fondoen zenbatekoa Barne Produktu Gordinarekin alderatuta.
5) Pentsio-fondoen zenbatekoa pertsona kopuruaren artean zatituta, mila milioi dolarretan adierazita.

## Galderak eta erantzunak

**Nortzuk izan daitezke nire onuradunak Elkarkidetzan?**

**Erantzuna:** Lehenengo onuraduna zu zeu zara. Argi izan behar dugu partaide guztiok erretiroan prestazioa kobratzeko kotizatzen dugula, eta denok dugula hori disfrutatzeko esperantza. Gainera, elbarritasunagatiko prestazioa kobratzeko eskubidea ere sortzen ari zara.

Zoritxarrez ez bazina erretiratzeko adinera helduko, alarguntzako prestazioaren onuradunak zure ezkontidea, edo ezkontzeko gaitasuna duen bikotekide egonkorra izango lirateke. Hori ere bizirik ez balego, zure 25 urtetik beherako seme-alabak zurztasunagatiko prestazioaren onuradunak izango lirateke. Horrelakorik egon ezean, zure oinordeko legalei metatutako kapitala berreskuratzeko eskubidea sortuko litzaieke. Ezin da aipatutakoez kanpo beste onuradunik egon.

**Uste dugu azken buletinari freskotasuna falta zaiola, kolore biziagoak eta batez ere ez dela irakurtzeko erakargarria.**

**Erantzuna:** Etengabeko hobekuntza-prozesuan gaude eta zuon iradokizunak eskertzen ditugu. Buletina bizia izatea, eta kontsulta eta ekarpen guztietarako zabalik egotea nahi dugu. Zenbaki honetan hobetzen saiatzen jarraitzen dugu eta egin ditugun aldaketei buruzko zuon iritzia jaso nahi genuke.

**Eskubide kontsolidatuak pentsiorako eskubidea sortu aurretik kobratu daitezke?**

**Erantzuna:** Bai. Kasu bitan osorik kobratu daitezke: "iraupen luzeko langabezia" eta "gaixotasun larria" deritzen kasuetan. Bietako lehenengoan langabezia-egoera legalean gutxienez urtebetean egotea eta INEMetik kotizaziopeko prestaziorik ez jasotzea exijitzen da. Bigarrenean, gaixotasun larria izan behar duena bazkidea edo lehenengo mailako arbaso edo ondorengoa izan behar da, edo bazkidearekin batera, tutoretza edo atospen erregimenean, bizi den pertsona, eta bazkidearen menpekoa bada.

# www.elkarkidetza.net

Informazioaren teknologia berrien aurrerapen biziari, eta, zehatzago, interneten erabilera gero eta handiagoari erantzun argia ematen dio Elkarkidetzak, sortu berri duen web gunearekin. Horren bidez, bazkideak artatzeko eta aholkatzeko ahalmena gehitu dugu.

Gainera, bazkideek euren datu pertsonalak ikusi ahal izango dituzte, gure bulegoetan baleude bezala. Euren erosotasun eta gogobetetzerako gugandik klik batera daude.

Horretarako, aurretik “e-bazkide” bihurtu behar zara, web gunean bertan. Une horretatik aurrera zerbitzu guztiak erabiltzeko modua izango duzu, zure kode pertsonala erabiltze hutsarekin.







Web gunetik barrena ibiltzera gonbidatzen zaitugu hobeto ezagutu gaitzazun, gure bazkideei arriskurik gabeko etorkizun segurua eskaintzearren zer egiten dugun eta nola egiten dugun lan jakin dezazun. Gizarteaurreikuspenaren munduan sartu nahi zaitugu.

